

ARGITASUNEZ IHINTZATUTAKO GAUA

Irati Goikoetxea

Beasain, 16 urte

1. Bihotz beraren taupada dira
argia eta iluna,
gorputz bereko soin enborraren
adar gaua ta eguna,
San Juan bezperan zipriztintzen den
misteriozko jarduna,
ametsen kulun-kuluna,
sorginkerien laguna (bis)
abaildura ta nekeziaren
atseden leku kuttuna,
antzinarotik zahar ta gazteok
gehien desio duguna. (bis)
2. Kotoi arteko erresumatik
uda zaigu iratzarri,
bero dirdaia beterantsiaz
hainbat usadio zaharri,
bere irrifar xaloarekin
bizipoza du ekarri,
ekiaren bizigarri,
itzal-argien uztarri (bis)
guztiok gara haren jario
emankorraren egarri,
haren txinparta baita udako
festa ooren pizgarri. (bis)

3. Etxerik etxe, dendarik denda,
pausatu da prestaketa,
armairu zaharrak, panpin beso nahiz
aitonaren eskopeta,
sasi, ote ta sastraken baitan
iltzatuz gure arreta,
sinesmenaren oreka,
ezkutukien fereka (bis)
solstizioa iritsi denez
alaitasunez beteta,
gure ametsak eztimamituz
osatu dugu su-meta. (bis)
4. Suzko izarra mendilerroan
etzan deneko orena,
arin-arina, fandango eta
zortzikoaren eszena,
miretsi ditut begi-ninien
erretinetan barrena,
aparteko gozamina,
zirrargarri zait dena (bis)
zangoen dantzan zaindua eta
irrintziaren kemena,
magia ttanttzaz bustita dator
urteko gaurik motzena.
5. Horizontean irudikatuz
etena eta lotura,
haize epelak kilikaturik
suak hartu du itxura,
erregai ditu gosea, gerra,

etsipena ta tristura,
ezinduen arrenkura,
ta azterketen ardura (bis)
oinaze oro haustuz taupada
bakoitzaren agindura,
azken errautsen irribarrean
zoriona loratu da. (bis)

6. Neroni ere usadiotik
ezingo naiz erretira,
beraz begiak zuzendu ditut
su metatik haraindira,
bakea nahi dut, bakea nahi dut
bortizkeriaz aski da,
presoak Euskal Herrira,
hurreratu behar dira (bis)
anaitasuna ta justizia
gizartearen neurrira,
salto batean urka dezadan
desioaren desira. (bis)

7. Egunsentiak lehendabiziko
izpiak erditu ahala,
gure gorputza zelai bustian
iltzatzen da berehala,
biluzik, aske eta amesti
natura bera bezala,
eite izpirituala,
iraunkorra ta leiala, (bis)
belardi berde ta hezeari
eskainiz larru azala,

etorkizunak indarrez eta
sasoiz ihintzatu gaitzala. (bis)

8. Elorri zuriz ederretsiaz
ate aurreko paisaia,
gau isilean entzun daiteke
suaren arnas lasaia,
usadio ta gaurkotasunak
hauspotzen dute ezbaia,
biziberritzeko nahia,
zorion beteko jaia, (bis)
naturaz gaindi hedatua da
ke mehearen esanahaia:
erioaren argizuloa,
bizidunen bizigaia. (bis)

DOINUA: Leiho ertzetik

EZIZENA: Elorri